

CARLOS PÉREZ URALDE IRRATI-ANTZERKIAREN VI. LEHIAKETA

OINARRIAK

Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdiak Radio Vitoria EITBk eta Laboral Kutxak **CARLOS PEREZ URALDE IRRATI-ANTZERKIAREN LEHIAKETAREN** seigarren edizioaren deialdia egin dute.

Irratian soinu-fikzioa sustatzea da lehiaketaren helburua, hedabide horretara egokitutako antzezlanen jatorrizko gidoiak baliatuz.

Hona hemen oinarriak:

1- Lanen betekizunak

- a) **Argitaratu gabeak** eta aurretik **saririk jaso ez** dutenak izan behar dute. Ez da beste lan batzuen egokitzapenik (osorik edo zatika) edo bertsiorik onartuko.
- b) **Euskaraz edo gaztelaniaz** izan daitezke.
- c) Gaia librea da. Epaimahaiaren iritziz oinarritzko eskubideak urratzen dituzten gidoiak lehiaketatik kanpo geratuko dira.
- d) Irrati gidoiaren formatuan idatziko dira, pertsonaiak gehienez ere lau aktorek interpretatuko dituztela kontuan izanik.
- e) Lanak, muntatu ondoren, ez du 25 minututik gora iraungo. Bosna minutuko bost kapitulu bati dagokio kapitulu bakoitza, astelehenetik ostiralera bitartean irratiz emateko. Era berean, kapitulu baten eta hurrengoaren arteko lotura egin beharko da entzuleak aurreko egunekoaren berri izan dezan. Halaber, bost minutuko bost pieza independente bidali ahal izango dira, betiere lotura tematiko edota dramatiko komuna badute.
- f) Gidoia posta elektronikoren bidez bidaliko da formatua honetan: 1,5eko lerroartea, 14ko tamaina eta Arial letra-tipoa; radioteatro@vitoria-gasteiz.org helbidera.

- g) Egile bakoitzak gehienez bi lan aurkeztu ahalko ditu. Ezin da estatuko edo nazioarteko saririk lortu duen idazkirik aurkeztu, ez eta epaia eman artean beste lehiaketa batera aurkeztzen denik ere.
- h) Saridunak Radio Vitoria EITBri eta Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdiari lagako dizkie lana eman, erreproduzitu, publikoki ezagutarazi eta banatzeko eskubideak.
- i) Lanak, sinatu gabe eta egilea identifika dezakeen daturik gabe, lelo edo ezohiko goitzen batekin aurkeztuko dira.
- j) Aparte, beste artxibo batean, datu hauek zehaztuko dira:
- Egilearen izen-deiturak
 - Helbidea, herria, probintzia.
 - Posta-kodea
 - Harremanetarako telefonoak
 - Posta elektronikoa
 - Nortasun-agiriaren kopia.
- k) Testuaren goiburuan leloa edo goitizena, eta izenburua idatziko dira.
- l) Egilearen erantzukizuna da lehiaketara aurkeztutako lanak Jabetza Intelektualaren Erregistroan inskribatzea, bai eta ez inskribatzeak hirugarrenen aurrean izan ditzakeen ondorioak ere. Lana lehiaketara aurkeztzen den unetik, egileak lehiari uko ez egiteko konpromisoa hartzen du.
- m) Gidoiek hizkuntza inklusiboaren erabilera egokia bermatuko dute.

2- Lanak aurkeztea

1. **Posta elektronikoz** helbide honetara: radioteatro@vitoria-gasteiz.org

2. Bi artxibo sartuko dira:

- Bat, gidoia sinatu gabe eta parte-hartzailea identifika dezakeen daturik gabe, lelo edo ezohiko goitizena eta izenburua testuaren goiburuan dituela.
- Beste bat, aurreko klausularen j puntuan adierazitako datuekin.

3. Lanak aurkezteko epea **2021ko ekainaren 30ean amaituko da**

3- Hautatu ez diren lanak itzultzea

1. Hautatu gabeko lanak ez dira itzuliko.

2. Antolatzaileek ez dute bere gain erantzukizunik hartuko, haien erruz zein besteren erruz . lehiaketara aurkeztutako lanik galtzen bada.

3. Antolatzaileek saritu gabeko lanak suntituko dituztela ziurtatzen dute.

4- Epaimahaia eta bozketa

1. Lehiaketa deitu dutenek erabakiko dute lanak hautatu, balioetsi eta bozkatzeko sistema.

2. Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdiak, Radio Vitoria EITBk eta Laboral Kutxak hautatuko dute epaimahaia. Irratigintzan, antzerkigintzan edo kultura kudeaketan ospe handiko pertsonak osatuko dute epaimahaia.

Epaimahaikideak arduratuko dira proiektuak hautatzeaz; ondoren, Radio Vitoria EITBk ekoitzi eta emitituko ditu, Nazioarteko Antzerki Jaialdiaren baitan

5- Sariak

Guztira 4.000 euro emango dira, honela banatuta:

- **Bi mila eurokoa, irrati-antzerkiko gaztelaniazko lan onenarentzat.**
- **Bi mila eurokoa, Laboral Kutxa saria irrati-antzerkiko euskarazko lan onenarentzat.**

6- Beste gai batzuk

Radio Vitoria EITBren eta Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdiaren euskarrietan **jakinaraziko dira irabazleak**, bai eta www.principalantzokia.org web-orrian ere 2021ko irailaren lehenengo hamabostaldian.

Sariengatik dagokion **PFEZ ordaindu** beharko da, indarrean dagoen legeriari jarraituz.

Gerora lanen jendurreko komunikaziorik egiten bada, saria lortu dutela lehiaketa honetan adieraziko da.

Parte hartzeak oinarri hauek guztiak onartzen direla adieraziko du, salbuespenik gabe, bai eta horiek betetzeak dakartzan eskubideak eta betekizunak ere. Oinarrietan aurreikusi gabekoetan, antolatzaileek egoki iritzitako erabakiak hartu ahalko dituzte, edo aldaketak egin.

Epaimahaiak eskubidea izango du oinarritzko eskubideak urratzen dituzten gidoiak lehiaketatik kanpo uzteko.

Oinarrietakoren bat betetzen ez duenak ezingo du lehiaketan parte hartu, eta saria lortuz gero baliorik gabe geratuko da.

Ematen ari zaren xehetasunak erakunde honek duen “Jardueren Kudeaketa eta Zabalkundea” fitxategi automatizatuan sartuko direla jakinarazten dizu Gasteizko Udalak, 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa betetze aldera. Udalak bere eskumeneren alorrean antolatzen dituen interes kultural edo sozialeko jarduerak kudeatu, ezagutarazi eta sustatzea da fitxategiaren helburua. Deseginez gero, datuetan sartzeko, horiek zuzentzeko, aurka egiteko, ezabatzeko ("ahazteko eskubidea"), tratamendua mugatzeko, eramangarritasuna izateko eta banakako erabakiak ez hartzeko eskubideak balia ditzakezu Gasteizko Udaleko Argibide eta Erregistro Bulego Nagusira jo beharko duzu, helbide honetara: Espainia plaza, z/g; 01001 Vitoria-Gasteiz, edo herritarrei laguntzeko bulego guztietan.